



Anaitasuna Ikastola
1968 · 2018



Ausarten emaitza

25. urteurrenean argitaratuta

Ermuko Ikastolaren sorrera, imajina daitekeenez, ez zen lan erraza izan. Euskal Herriko hainbat herritan bezela, oztopo ugari gainditu behar izan baitu bere historian zehar, gehien bat lehen garaian.

68.ko udaberri hura

Jaio zen Paris, Praga eta Vietnametik urrun, baina bazirudien munduko aldaketa haizeak hona ere zelanbait iristeko asmoa zuela, eta herri mailako iraultza sortarazi zuen. Ermua garai horretan erritmo ikaragarrian ari zen hazten, eta bertoko euskaldun eta abertzale talde batek beren nortasunari eutsi nahirik, Ikastola erdi isilean zabaltzeko asmoa adierazi zuen.

Hauen artean, Matilde Isasi-Isasmendi, Agurne Agirregomezkorta, Agustin Aranberria, Ander eta Imanol Olaizola eta Jesús Atxa Elorriokoa aipatu daitezke. Historiatxo hau idazteko Matilde, Agurne eta Jose Alberto Baglietorekin hitz egin genuen, eta hona hemen solasaldi horrietatik ateratakoa.

Oztopo guztiak atzean utziz, aurrera!

Urteak pasa dira eta ez da erraza orduko gertakizun guztiak gogoratzea, are gehiago paperik ez dagoenean, inspekzioen beldur.

Hiruzpalau urteko 7 umerekin ekin zitzaion, magisteritza titulu bat aurkeztuta Ministerioak eman zuen baimenarekin. Hasi, herriko plazako lokal batean hasi zen, alfonbra batzuk altzari gisa, baina berehala alkatearen salaketaz itxi egin zuten, "baimen batzuk falta zirelako".

Halere, jaramonik ez honi eta segitu egin zuten. Hasierako asmoa eskolaurrea bakarrik ematea zen, eta haurren guraso batzuek zalantzak zituzten, batik bat beranduago *básicara* ailegatzean zer gertatuko zen ez zegoelako argi.

Hortaz, titulu, lokal eta abarren bila hasi behar izan zen, hiru titulu eta *abadeen etxea* izenekoa lortuz. Agurnek zioen moduan "ez genekien kurtsoan zehar ze pasako zan ekainean, ekin behar ta listo. Balore bat izan gendun...!".

Paraleloki, arduradunak, Bizkaiko beste ikastoletako ordezkariekin elkartzen ziren hilean behin Euban, arazo eta abarrez berba egiteko.

Ermua mailan guraso eta irakasleak biltzen ziren, azken hauek gizarte segurantzarik ere ez zutela, *asegurotxo* moduko bat egin zitzaielarik.

Seiscientos bat

Dirua ateratzeko makina bat gauza antolatu ziren: taberna, jaialdi... Enpresetatik iragan zen eta Seiscientos bat zozketatu zen errifen bidez. Seiscientos hau Bilbora joan zen aurretik, Matilde bertako lehengusu batengana joan baitzen, lagunaren artean errifak eta odolosteak banatzeko. Benetako aurrekontuak geroago egiten hasi ziren, Juan Alberto Baglieto sartu ostean.

Ermuko Ikastolak azken urteotan izan du berezko edifizio bat, baina bitartean hainbat lokal eta etxetatik igaro da. Aipatzekoak dira elizako lokalak. Hauek lortze-

ko, Añoveros apezpikuaren laguntza eta kontzientzia eskertzeko modukoak izan ziren. Horrela, Anaitasuna Ikastolak elizaren babesaren lortu zuen, garaiko askok bezala. Beste babes moduko bat Eskola Nazionalakoa izan zen, eta honen bitartez, lehenengo kartilak eskola horretako Angelesek sinatzen zituen. Baita ere, Zentro Kulturalarekin akordio batera iritsi zen. Ez bata ez besteak ez zituzten gauzak legepean, baina elkartuta bai: Ikastolak tituluak eskaintzen zituen eta Zentroak kartilen sinadura.

Besteak baino hobeto

Anaitasunak aurrera egin ahala, gero eta arazo gehiago zituen, eta hauetako bat metodologia berria zen. *Ikastola* katalanak izan ziren aitzindari. Jesús Atxa (Bizkaian ikastolak zabaltzen ibili zena), hango eskolak bisitatzen ari-tu zen 3 hilabetez, eta gero hona ekarri zuen metodologia hori. Horrela, testuak gehienetan kata-

luniarren kopia ziren. Bestalde, Ikastolan ez zen irakurtzen irakasten lehen unetik, eta honek zalantzak sortzen zituen gurasoengan, fruituak ikusten hasi zirenera arte, eta berriro konfiantzaz bete. Bestalde, euskara batua erabiltzea aukeratu zen, batik bat testuak eta materiala prestatzeko eta beste ikastoletako materiala erabili ahal izateko, baina bizkaiera mesprezatu barik.

Lema nagusia, "besteak baino hobeto irakatsi", militantismoaren ondorioa zen. Adibide gisa, ikastolan hasi zen ingelesa irakasten frantsesaren ordeaz. Azkenik, Ikastola sortzea gutxi balitz, pertsona hauek ez ziren horrekin konformatu, eta eskolaz kanpoko ekintzak ere antolatzen hasi behar: euskarazko koloniak eta Txindurri dantza taldea, esaterako.

Guzti honen ondorioz, garai hartako ausarten fruitua ikus daiteke orain, Anaitasuna Ikastola Ermuko ikastetxe garrantzitsuenetariko bat bihurtzea lortu baitute.





Agurtza Totorika, Koldo Aranberria eta Miren Araiztegi: ikasle ohi, irakasle eta guraso

Denborak bere zulatutako zapiaz estaltzen gaitu eta, tarteka, iraganak lausotutako oroitzapenak dakartzkigu, komeni zaiona, edo zaiguna, iragaziz. Erromantizismoa nagusitzen da horrelakoe-tan, aspaldian bizitakoa mitifikatuz, goraipatuz. Hala ere, gure banakako eta giza taldearen historiaren zatia da eta, historia izanik, benetan gertatutakoa.

Horrela gertatzen da ondoren gogoratuko ditugun aspaldian bizitakoaz, XX. mende bukaeran Ermuan (Euskal Herriko beste hainbat herritan legez) jazotakoaz.

Garai hartan, 1968. urtean, er-muar talde batek irtenbidea eman nahi zion euskarak bizitzen zuen egoera tamalgarriari, bere erabile-ra normaltasunez hedatu herrian, bere etorkizuna bermatu. Eta ho-

rretarako zer egokiago ikasketak euskaraz eskainiko zituen eskola sortzea baino? Horrela sortu zen Anaitasuna Ikastola gure herrian.

Horrela gogoratzen dugu Agurtza Totorikak, Koldo Aranberriak eta Miren Araiztegi, geu izan bai-kinen garai hartako lehenetariko ikasleak.

Abenturan murgildu

Ermuko gizon-emakume taldea elkartu (Agustin Aranberria, Ander eta Imanol Olaizola, Juanita Ibaibarriaga, Jesús Atxa, Matilde Isa-si-Isasmendi, eta Agurne Agirre-gomezkorta “Lomiñonekua”...) eta abertzaletasunak, euskarak eta kulturak bultzatuta aurrera egitea erabaki zuten, beste herri batzue-tako eredua jarraituz. Horrela, eu-ren inguruan (soziedadean, lagun taldean...) zebiltzan batzuk anima-tu edo ausartu ziren eurak eta euren seme-alabak *abentura* ho-rretan murgiltzen.

Ausartu hitza ez da gehiegiz-koa, kontuan hartu behar baitugu orduko giro politikoa zein zen. Imajina dezakegunez, hasiera guz-tiak bezala, trabaz edo zailtasu-nez betetako bidea izan zen.

Hasieran plazako pisu batean hasi ginen. Balkoiak plazara ema-ten zuen lehen pisu batean, or-duko udaletxeari begira. Han ha-si ginen 3-4 urteko dozena bat inguru neskatila-mutiko. Hurrengo urtean 15-16 izan ziren. Ausar-diaz gain, ilusioa ere nabarmena

zen. Hala ere, hauetariko batzuk hasi eta urte gutxira utzi egin zu-ten, agian, zer nolako prestakun-tza izango zuten beldurrez. Beste batzuk, akaso, errepresioaren beldurrez. Edo, beharbada, bata besteari gehituta.

Bilbon Gobernadorearekin

Ez da harritzekoa. Ikuskariak Ikastolara osteratxoa egiten zue-nean giroa erabat aldatzen zen, urduritasuna eta beldurra ba-rreiatzen ziren guztion artean. Etorri aurreko egunetan ikasleei jakinarazten ziguten agertuko ze-la, eta jarrera egokia mantendu behar genuela, eta baita agindua zuzen bete ere. Badaezpada? Noski. Ea bestela nola uler dai-tekeen pasadizo hau:

Ikastolako bultzatzaile batzuk Bilbora joan ziren Gobernadore-a-rengana zerbait eskatzeko as-moz. Bertan zain zeudela, idaz-kariari hau entzuten diote Go-bernadoreari zuzenduz:

—“Señor Gobernador, están aquí los de la Ikastola de Ermua porque quieren hablar con usted.

—¿Cómo? Pero, ¿si hace tiem-po que he dado orden de cerrar esa Ikastola!”—gobernadorearen erantzuna.

Hau entzun eta ziztu bizian alde egin zuten, badaezpada. Ondo neurtu behar zituzten eman beha-rreko pausuak, bai Ikastolaren me-sedetarako, bai euren egoera per-tsonalaren mesederako.

Plazako pisutik, Salabarria etxe-ra eta beste batzuk elizara joan ginen. Azken honetan finkatzen hasi zen Ikastolaren egoitza (le-hen mailatik bosgarrenera). Agian Elizak berak babesa ematen zue-lako-edo, Ikastola jende aurrean agertzen hasi zen: Lehen erdi ez-kutuan zegoena publiko egiten hasi zen. Aldaketa ederra espazio aldetik! Eraikina bera, bere patio, gelatxo eta guzti, deskubritzeko genuen mundua!

Iraultzaileak gure alde

Ikastola eta Ermuko beste ikas-tetxeen arteko aldea nabarmena zen: ikasle kopurua (gurea txikia, besteetan galanta), baliabide ma-terialak...

Baina, desberdintasun handi ho-rien aurrean, bazeuden gure al-dekoak zirenak, aurrerakoiak, *iraultzaileak*. Edo guk horrela us-te dugu behintzat.

Alde batetik, Ikastolan talde mistoak osatzen genituen. Aldiz, beste eskoletan, sexuaren arabe-ra banatuta zeuden: neskak alde batetik eta mutilak bestetik. Ho-rrez gain, atzerriko hizkuntza ira-kasterakoan ere, aldea zegoen. Besteetan frantsesa eskaintzen zuten; Ikastolan, ostera, ingelesa.

Ikasle-irakasle harremana ere aipatzekoa zen. Beste eskoletan *Don* eta *Doña* asko zegoen, eta belarrondoko ederrak jasotzen zituzten ikasleek; gurean, alde-rantziz, hurbilak ziren irakasleak. Familia estua osatzen genuen, eta guraso zein irakasleen arte-ko harremana oso ona zen. Go-goan ditugu, oraindik, orduko irakasleen izenak: Luziatxo, Be-goña “Txikia”, Kontxi, Olatz, Ja-sone, Begoña Aginaga, Mariaje, Xabier eta Joxe.

Gogoan dugu etxetik geneka-rren euskararekiko lotura estua bazen ere (eta kontraesana diru-dien arren), han ikasi genituela gaztelaniazko lehen hitzak. Etxera joan eta amari edo aitari “*casa* etxea da”, eta horrelakoak esa-nez agertzen ginen. Agian, gure-kin batera bazeudelako ama hiz-kuntza gaztelania zuten ikasle gu-txi batzuk.

Garai hartan eskolaz kanpoko ekintzak ere egiten genituen: gaua Mutrikun etxetik kanpo pa-satu; Firestonera irteera; Bergara-ko galeper haztegira bidaia, etxe-rako bueltan galeperkume bana kaxan gordeta...

Potroa, plintoa...

Beste hainbat gogorapen ere baditugu. Besteak beste, asko abesten genuela orduan Ikasto-lan. Orduko abestiak, oraindik ere, gogoan ditugu. Inguruak eza-gutzero ere sarritan joaten ginen, Untzama aldera batez ere. Al! Eta elizan gimnasia orduetan egiten genuena? Tramankulu zahar haie-tan? Potroa, plintoa... Arotz lan guztiak Antonio Gartzia gurasoak eraikitakoak.

Eta ez dugu ahaztu behar Ikas-tolari esker, edo honen babesean, udalekuak edo Txindurri dantza eta txistu taldea sortu zirela.

Orduan 5. maila amaituta Eiba-rrera joaten ginen OHO jarraitu eta amaitzera. Aldaketa handia izan zen hura. Familia txikian ego-tetik *familia numerosa* izatera pa-satzen ginen. Eta ez ikasle kopu-ruagatik soilik. Ermuan irakasle gutxirekin ohituta, bat-batean, gai bakoitzeko irakasle bat geneukan. Hasiera batean kosta egin zitzai-gun moldatzea, baita ikasgaiekin ere.

Argi dago Ikastola ezinbestekoa izan zela euskara mantendu eta zabaltzeko. Ohiturari jarraituz, or-duko ikaskideekin orduan bezala, oraindik euskara dugu mintza-tresna. Nahiz eta erdararako joe-ra nabaria izan genuen koskor-tzerakoan. Horren adibide Euska-ra ikasgaien nota baxuagoa jaso izana behar beste ez erabiltzea-gatik.

Aldaketekin, bidean zerbait geratu zen

Gaztaroan zortzi-hamar urtetan zehar Ikastolarekin ia loturarik gabe pasa ondoren, ikasle izate-tik irakasle izatera pasa ginen. Errekako alde honetan ere ilusioz ekin genion lanari. Proiektu ho-rren zati garrantzitsu sentituz, umetan legez, Ikastola geurea zen eta urteak aurrera egin ahala are gehiago.

Aldiz, Ikastolaren estatusa alda-tzerakoan zerbait aldatzen da ba-rruan. Aurrera jarraitu genuen, baina bidean zerbait albo batera gelditu izan balitzaigu bezala.

Urteak aurrera egin ahala, ira-kasleak izateaz gain, gurasoak ere baginen. Gure seme-alabak matrikulatzerakoan ez genuen za-lantzarik izan. Bertan lanean ari-tzen ginenez, ondo ezagutzen ge-nuen egin eta lantzen zena. Gai-nera, herrian zegoen “D” ereduko ikastetxe bakarra zen.

Bide luzea egin dugu eta orain-dik ez da amaitu. Denborak au-rrera darrai eta sasoiak aldatuz doaz. Baina bizitakoa gure oroi-tzapenen ganbaran gorderik da-go, gure herria eta historia elika-tzen jarraitzeko.

Esaerak dionez: “Izan zirelako gara eta garelako izango dira”.

50 urte elkarrekin






Ikastolako ibilbidearen hasiera...

Dozena erdi ikaslerekin, andereño eta guraso gutxiren ahaleginei esker, eta arazo la-tzak pasatu ondoren, Ermuko irakaskuntza euskaldunaren lehenengo urratsak eman zi-tuen Ermuko Ikastolak 1968an. Hori dela-eta, benetako eskerrak eman behar zaizkie li-buruxka honen lerro eta irudietan agertzen diren ermuar aitzindariari.

Esku artean dituzun orriotan, Ikastolako toki desberdin, ikasle ohi, irakasle eta gura-soen gogoetak eta irudiak jaso ditugu.

Anaitasuna Ikastolako ikasleen kopurua 1968-2018

		1970	14	1980	141	1990	330	2000	433	2010	414
		1971	31	1981	173	1991	308	2001	417	2011	429
		1972	57	1982	211	1992	419	2002	427	2012	419
		1973	69	1983	244	1993	427	2003	427	2013	399
		1974	74	1984	266	1994	466	2004	430	2014	390
		1975	79	1985	283	1995	475	2005	450	2015	374
		1976	83	1986	298	1996	376	2006	444	2016	386
		1977	95	1987	320	1997	389	2007	447	2017	388
1968		1978	107	1988	330	1998	410	2008	439	2018	394
1969		1979	142	1989	341	1999	419	2009	424		



...eta ordutik gaur egunera arte erabili dituen eraikinak



Plazako etxebizitzak,
Zubiaurre goiko lonjak,
Balerioko lokalak,
eliza ondoko gelak,
San Inazioko txokoa,
Santa Anako eraikina eta
Ongaraiko eraikina.
Hori bai, San Inazioko lokalak
beti izan dira komodinik one-
nak!



Hamasei urte bete arte Anaitasuna Ikastolan ikasi nuen. Ez daukat haurra nintzeneko oroitzen askorik, baina gogoan daukat Lehen Hezkuntzan nukan Olga tutorea. Gogoratzen ditut plastikazko klasean igarotako orduak, eta artearekin lotutako guztia atsegin nuela. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza hasi nuen heinean, irakaslea izan nahi nuen.

Txikia nintzenean ez nituen libururak irakurtzen, baina DBHko lehenengoko mailan behartu ninduten libururak irakurtzera. Eta hor literatura gustuko nuela

ohartu nintzen. Sinestezina da nola liburu batek bizitza aldatzen dizun bereziki biziki, eta gauzak horrela, idazten hasi nintzen, baita filologiaren interesatzen ere. Hori horrela, irakasleek asko lagundu zidaten nire lehenengo liburuak idazten. Liburuan nire esperientziak, sentimenduak, aholkuak... jaso nituen.

Ikastolatik oroitzen ederrak eraman nituen, batez ere irakasle eta lagun onen aldetik.

Gainera, sarritan planak egiten ditugu, eta txikitik bizitako momentu ederrak oroitzen ditugu zoriontasun handiarekin.

Nire kuadrilla bi urterekin eza gutu nituen lagunez osatuta dago. Beste lagun batzuekin (kuadrillan ez dauden arren), ez dut harremana galdu. Izan ere, biziki gustuko dut jendearekin harremana ez galtzea.

Azkenean, ez nuen irakasle edo filologia ikasi: diseinu grafikoa, nazioarteko merkataritza eta bibliotekonomia ikastea erabaki nuen. Ez dut ahaztuko Ikastolan jasotako laguntza: nire liburuak idazteko, lagunak ezagutzeko, nire etorkizuna erabakitze-ko eta, batez ere, momentu hain onak pasa ditudalako.



Aitor González Txirrindulari profesionala

Momentu asko dira Ikastolako 10 urteetan bizi izan ditugunak, 10 urte horien ostean oraindik ere gogoratzen ditudanak: 6 urtekoen gelatik gelakideak izan diren eta gaur egungo kuadrilla dudanarekin egin ditudan irteerak (baimenduak, eta ez hain baimenduak).

Lagunekin hasi behar dut, gaur egun nire kuadrilla Ikastolan edukitako gelakideek osatzen baitute. Ez ginen formalenak, egia esan: beti ibiltzen ginen han edo hemen baloiarekin edo pilotarekin jolasten, nahiz eta gela barruan egon. Ez dut uste oso txarto portatzen

ginenik, baina klase batzuetan pailloan geratu behar izateak ez zigun pena handirik ematen, kar-kar-kar!

Ikastolarekin egiten genituen irteerak ere gogoan ditut: Baratze, Lurraska eta beste hainbeste leku. Egunero ikasten ziren gauzak, eta ia egunero jasotzen genuen zigor txiki bat, kar-kar!

Beti etortzen zaizkit burura playback egunak, aurreko asteetan preparatzen zirenak, saioak... Ingeleseko klase orduetan baze- goen aukera saioak egiteko, arazo barik; baina gimnasiako orduetan, ez, mesedez!

Jantokian San Blasak egiten genitueneko momentuak gogoratzen ditut, jantokian bizi izandako momentu on

bakanak. Jatea beti gustatu izan zait, baina... jantokiko janariarekin arazo larriak izaten nituen, batez ere azal lodiko garbantzuekin! Hori bai, arroza zegoenean, gehiago eskatzen nuen beti. Hor ere sarritan amaitzen genuen zigortuta: ogia askotan irteten zen gure mahaitik beste mahairen batera hegana.

San Martin azoka ere txikitatik bizi izan dugu gertu, ikasbidaia-ko barazkiak saltzen baikenituen bertan. Zelako kalabazin handiak lortzen genituen Berano Txiki auzoko baserrietan! Horrelakoak jantokian jarritz gero, errepikatze-ko moduko platera izango zen hori ere!

Ikastola amaitzeko garaia heldu zen, eta ikasbidaian joateko go- goak airean nabaritzen ziren. Zenbat tortilla pintxo saldu ote genituen urte horretan? Gurasoek ezin sinisturik, baina iratzargailua aurreratu egiten nuen ogia eroster- tera joateko! Ikaragarria, ikasbi- daiarako tortillen salmentek lortu zutena!

Ahobizi izateko aukera eman di- gulako, eta kontatu ditudan isto- riotxo guztiak euskaraz bizi izan ditugulako ere eskerrak eman nahi dizkiot Anaitasuna Ikastolari.





Leire Gorritxategi Xabalina-jaurtitzailea

Gaur egun Teknologia Industrialeko Ingeniaritzako gradua bukatzen ari naiz, eta horrez gain xabalina jaurtiketan aritzen naiz.

Anaitasuna Ikastolan Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egin ditut; hau da, bertan igarodut nire bizitzako urte gehienak. Milioika oroitzapen ditut. Ez bakarrik zentroan izandako esperientziak, baizik eta bertatik kanpo Anaitasuna Ikastolari esker bizi izandako esperientziak ere.


Aipatzekoa da Ikastola honek kirolaren inguruan erraztasun asko ematen duela. Oso txikitatik kirolaren munduan barneratzeko laguntza eskaintzen du. Nire kasuan, Lehen Hezkuntzako 3. mailan hasi nintzenean, eskubaloia eta atletismoa egiteko aukera

eman zidaten. Handik aurrera, urte askoz ibili nintzen bi kirol horietan. Azkenean, denbora falta zela-eta, bakar bat aukeratzeko beharrean ikusi nintzen. Erabakia hartzea oso zaila izan arren, xabalina-jaurtiketa aukeratu nuen. Handik aurrera, lan gogorra eginda, hainbat garaipen garrantzitsu lortu ditut; besteak beste, internazionala izatea.

Lehen esan bezala, urte asko igarodut Ikastolan, nahiz ikasten, nahiz kirolean, baina beti lagunekin batera. Nire ustez, lagunekin egotea da garrantzitsuena, eurekin gehiago disfrutatzen baitira bizitzako esperientziak. Elkarrekin igarotako momentu aipagarri asko eta asko daude, baina behar bada batzuk beste batzuk baino hobeto eta gehiagotan gogoratzen ditugu.

ETBko *Mihiluze* saioaren bertsio bat antzeztu genueneko da nire oroitzapen gustukoenetako bat, 5. mailan geundela. Urte hartan, Oier ordezkoi irakaslearekin egon ginen, eta berak proposatu zigun ideia hori. Ordu asko pasa genituen dena xehe-xehe prestatzen, baina oso esperientzia polita izan zen, gustu handiz gogoratzen duguna. Nik "Mañukorta" bertsolariaren papera egin nuen, eta oraindik gogoratzen dut bota behar izan nuen bertsoa!

Argi dago nire lagunen artean asko gustatzen zitzaigula antzezteak. Egia esan, antzeztearekin baino, eszenatoki batera igotzean disfrutatzen genuen



gehien. Horregatik, beti hartzen genuen parte Ikastolako jaialdietan: neguko jaialdian, inauterietan, nahiz Ikastolaren egunean... Edozertara apuntatzeko preste geunden! Hala ere, gure obra garrantzitsuena *Broadway* izan zen, ikasbidaiarako dirua ateratzeko prestatu genuen antzezla. Gogo handiz antolatu genuen dena eta, ahalegin guztiek bezala, gure esfortzuak izugarriko saria jaso zuen. Antzerkia ikusi zuten guztiei asko gustatu zitzairen (oraindik ikusgai dago YouTubean).

Aurretik aipatu dudan moduan, nire lagunak eta ni edozer egitera animatzen ginen. Horregatik, DBHko azken ikasturteetan, *Anai-berritasuna* aldizkaria idazten hasi ginen Keparekin. Ez da erraza hamabost urteko zortzi lagun zoriarekin lan egitea! Zelako pazientzia duen gizon horrek!

Bukatzeko, derrigor aipatu behar ditut Ikastolarekin batera egindako bidaiak. Nor ez da Anaitasuna Ikastolarekin Lurraskara joan? Mitikoetan mitikoena. Eta eskiatzera? Zenbat abentura pasatu dugun hemendik hara! Hala ere, irteeren artean txapel-duna ikasbidaia izan zen: gure Lanzarote maitea, eta bertan geratu ziren milaka istorioak!



50. URTEURRENEKO EGITARAUA

ARGAZKI ERAKUSKETA: Maiatzaren 20tik ekainaren 2ra (Lobianon eta Euskaldunberri Plazan).

Argazkiak badituzu, anaitasuna50@gmail.com helbidera bidali ditzakezu.

Maiatzaren 24an

22:15 KONTZERTUA (Plazan).

Kokein + Issuna + Stai Zitto + Salda dago taldeekin

Maiatzaren 25ean - Urteurren jaia

11:00-13:00 HAUR JAIALDIA Antxitxiketarekin

12:00-14:00 TRIKI-POTEOA (Alboka Musika Eskola)

14:00 BAZKARIA (umeak) / 15:00 (nagusiak). Ermuko Plazan

15:00 MAGIA IKUSKIZUNA

17:00-20:00 ERROMERIA (Gauargi) + PLAZA DANTZA (Txindurri)

50. URTEURRENEKO BERTSOA

Urteak pasa ta joan zara
gorpuzten ta handituz,
Hasieran umea zenak
mende erdi bete dituz,
Zure izaera ta nortasuna
beti tinko defendituz,
Gure herria, etorkizuna
Euskeraren zena piztuz,
Horretarako bidean zehar
HAMAICA GAILUR GAINDITUZ

ANAITASUNA
IKASTOLA

